



“Etorkizunak prototipatuz” workshop-erako 12 beka, TIPIk gidatutako bitartekaritza artistiko partehartzailea.

Bilboko JM Sánchez Marcos eskolan bitartekaritza artistiko parte-hartzailearen diseinua eta praktika garatzean datza workshop-a, non elkarbizitza eta aniztasuna landuko diren artea eta diseinu espekulatiboaren bitartez. Diseinu espekulatiboa etorkizuneko aukerak imajinatu eta era kritikoan aztertzen dituen korronea da, hartarako objektu tangibleak erabiltzen dituen. Metodologia hau erabiliz eskolako umeei etorkizuneko erronkak identifikatu eta hauentzako erantzun posibleak asmatuko dituzte.

Workshop honen bitartez EHU/UPV-ko Arte Ederretako Fakultateko ikaslegoari praktika marko bat eskainiko zaio bitartekaritza artistikoaren arloan lan egiteko, eta proiektu erreal batean esperimenez eta talde lanean jarduteko aukera emanez.

Lehen atala AAEE-tako Fakultatean garatuko da eta hiru tailer barne-hartuko ditu. Parte-hartzaileek diseinu espekulatiboa oinarri izango duten bitartekaritza artistikoko hiru proiektu diseinatzeko formakuntza eta laguntza jasoko dute.

Bigarren atala eskolan burutuko da eta parte-hartzaileek aurrez diseinatutako tailerrak eskolako umeekin garatu eta dinamizatuko dituzte; eskola, auzoa edota munduari buruzko erronkak, desioak eta kezkei erantzuna eman eta aukerak irudikatzeko.

Programa 2018/2019 ikasturteko lehen lauhilekoan garatuko da:

- Bitartekaritza artistiko parte-hartzaileari buruzko tailerrak AAEE-ko Fakultatean: 2,5 orduko 3 saio ostegunetan (azaroak 11, 18 eta 25) eta eskolara bisita bat
- Garapen tailerrak JM Sánchez Marcos eskolan (Bilbo): 2 orduko 3 - 4 saio ostegunetan (azaroak 22, 29 eta abenduak 10, 13).

Bekek formakuntza eta jasotako jarraipena barne hartzen dituzte, baita eskolako tailerrak garatzeko materialak erosteko bonua ere. Prozesu osoan zehar parte-hartzen duen ikaslegoak ziurtagiria jasoko du.

Betebeharrak:

- EHU/UPV Arte Ederretako Fakultateko Gradu edo Master ikaslea izatea 2017/18 edo 2018/19 ikasturteetan.
- Euskaraz erraztasunez hitz egitea.

Eskaerak:

- Workshop-ean parte hartzeko motibazio gutuna, izen-abizenak, harremanetarako datuak eta burututako ikasketak (ikasturtea adieraziz).
- Eskaeren bidalketa irailaren 24a baino lehen egin behar da kaixo@wearetipi.co-ra.

Tailerra [TIPI](#)-k gidatuko du. TIPI-k diseinua soluzioak sortzeko tresna bezala erabiltzen du, pertsonen bizimodua eta berauen ahalmen eta gaitasunak hobetzeko erreminta bezala. Lurralde, erakunde eta pertsona taldeekin egiten du lan, ohiko eredu eta eskemak eraldatu nahi dituzten proiektuetan. Horrela, proiektuetan zeresana duten pertsona eta eragileen inplikazio zuzena bilatzen du.

"Gizartearen maila guztietan gehiago espekulatu eta eszenatoki alternatiboak esploratzen baditugu, errealitatea malguagoa bilakatuko da eta etorkizuna iragarri ezin den arren, desiratutako etorkizunak gertagarriagoak izateko faktoreak ezartzen lagunduko dugu"